

Juan Rulfo: "Familiak egunero jaten du..."

Deia, 1983-06-23.

Aspaldidanik Juan Rulfo-ren izena eta obra, obra laburra eta bikaina, nahiko hedatua bazegoen ere, ez zen idazle latin-amerikarrak 1960aren azken alderako "boom" sortu zuten horien tarteko bezala aipatua izan.

Orain horien *aitzindari* bezala seinalatzen badute ere.

Bi miloiko "Premio Principe de Asturias de las Letras" irabazi behar izan du aitormen hau lortzeko; gertakari honek merezi du irazkina, komentarioa.

"Zergatik ez duzu gehiago idatzi –galdetu dio Mexikon kazetariak– bi nobela besterik ez bai dituzu argitaratu?". Idazleari gauza asko bururatu zaizkio, noski, beste munduetako idazleei bezala; baina egiatan ari denez gero, idazleak (bestela ez litzateke egiazko idazlea izango) zuzen erantzun dio: "gure lau semeke familiak egunero jaten du, oinetakoak urratzen dira". Ezin izan dio apalago erantzun.

Eta, noski, *lan egin* behar du honetarako idazleak.

Idaztea ez da askorentzat lana; lan probetxugarria, alegia.

Juan Rulforen kasuan, bere herriko Instituto Nacional Indigenistan egin du hori azken hogeitaka urtetan; orain bete ditu adineko 65, eta ordainduko dioten mantenu sariarekin eta lortu dituen bi miloi pezetaren laguntzarekin, izango du berez, bokazioz, duen ofizioan lan egiteko *beta*.

Hau da: *Behar bezala gauzak egiteko* behar den denbora hori, euskarak "beta" hitzarekin hain egoki bereizten dakiena.

Hau falta Rulfori, hain sonatua den *Pedro Paramo* nobela irten zenez gero besterik ez argitaratzeko. "Ez ahal zara ezertan ari?", galdetu dio kazetariak harriturik.

"Bai –erantzun dio– zertxo bat ari naiz; baditut kontu batzuk idatziak, baina oraindik gehiago landu behar ditut. Honetarako denbora falta izan zait..." Ia 30 urte maitekro erditzen ari balitz bezalako min-pozez kreatzen daramatzala!, ezin du egunero jateko egunero idatzi behar duen kazetariak ulertu. Ez daki honek, (dena ezin ba jakin kazetari izanda ere!), Rulfo aipatzen ari den denbora ez dela denbora hutsa, beste buru-hauste larri gabeko denbora baizik, sortzaileak kreatzeko behar gorria duen bere barruko denbora, askorentzat "galtzeko" den denbora, "alferraren" denbora, dirua irabazteko balio ez duen denbora, eta euskarak hain egoki bereizten duen *beta*.

Dirua irabazteko denborak sortzaileari beta kendu, ohostu egiten baitio.